

Altxorraren Giltzak
Laudatio

Patxi Goenaga
(UPV/EHU, Euskaltzaindia)

Ibon Sarasola, Gorazarre

Donostia, Carlos Santamaria, UPV/EHU
2015eko martxoaren 13an

Ibon Sarasolari eskainitako omenaldi akademiko honetan *laudatio* gisako hitz batzuk josi nintzan eskatu zidatenean, hiztegia forma desberdinez izenda daitezkeen sentipenak etorri zitzaizkidan gogora: ardura, lotsa, kezka.... “Eskerrak, denbora mugatua eman didaten”, pentsatu nuen neure artean. Gero sortu zitzaizkidan berriro kezka: nola jaso hain denbora laburrean Sarasola maisu, lankide eta, hala ere, adiskide, dugunaren merezimendu ugariak! Behar ere ez, hemen gaudenok ongi ezagutzen baititugu.

Euskaldunok hitz gutxikoak omen gara. Hala ere, Iboni esker, euskarak inoiz izan duen hiztegiak aberatsena eskuarte dugu, *Orotariko Euskal Hiztegia*. Ibonek berak aitortzen duenez, bere ikerketaren gailurra. Hemen bildutako senatu ilustre honen aurrean, denok dakigunaz harago joatea zail bada ere, zerbait esatera ausartuko naiz. Hitz laburrak baina benetakoak, gure gaurko omendua ohoratzeko asmoz taxutuak, espero dut. Ohore bat niretzat, nolahi ere.

Lehendabizi Sarasolaren ibilbidea gogoratu: Donostian jaio (1946an). Ikasketak ere, unibertsitarioak barne, Donostian. Ingeniaritza 1971-n burutu zuen. Ingeniaritza aski ez, nonbait, eta trianguluzko ibilbide bat osatzeari ekin zion: Donostian abiatu eta Bartzelonara, Filosofia eta Letrak ikastera. 1975ean lizentziatu. Ondorengo bi urteak ere Bartzelonako Unibertsitatean irakasle. Hemendik Salamankara (1978-1979) Koldo Mitxelenaren lankide. Doktoretza Bartzelonan (1981). Eta triangulua itxiz, atzera Euskal Herrira, EHU-n euskal filologia ikasketak abian jartzera, Mitxelenaren lagun. Gero, berriz ere Bartzelonako unibertsitatean egonaldi luzea egin ondoren (1987-1998), atzera EHU-n (1998), ikerketa katedradun gisa Euskal Filologia sailean eta Euskara Institutuari atxikia.

Ibonek hiperespezializazioari ihes egiten jakin du. Esan nahi dut, bere interes intelektualak humanista peto-petoaren arabekoak direla:

Literaturaren esparrua, adibidez, eta ez euskarazkoa bakarrik, gogo handiz landu du. Bai **sortzaile** gisa, hasierako urteetan (*Poemagintza* (Lur 1969); *Joan eta Ane zigarro bat erretzen* (1977)).

Literatur kritikagile eta historiagile: (*Gerraondoko euskal-poesiaren antologia*: (1945-1964), (Lur 1973); *Euskal literaturaren historia* (Lur 1971); *Txillardegia eta Saizarbitoriaren nobelagintza (irakurlearentzat gidaria)* (Kriselu 1975); *Euskal literatura numerotan* (Kriselu 1975); *Historia social de la literatura vasca* [gaztelaniazko bertsoa] (Akal 1976).

Itzultzaile gisa: Voltaire-en *Kandido* (Lur 1972); André Gide-ren *Teseu* (Elkar 1987). Cortazarren *Kronopioen eta famen istorioak*, azkena. Gainera, gure zorionerako, etorkizunean arlo honi segitzeko asmoa duela aitortu du eta gustuko ariketa duela.

Testu edizioak prestatzen ere aritu da: Mitxelenaren idazlanak; Elissambururen *Piarres Adame...*

Euskararen historia, sintaxia...: “Sobre la bipartición inicial en el análisis en constituyentes” tesina benetan lan bikaina...

Baina argi dago Ibon hiztegi gintzan egindako lanagatik gogoratuko dugula beti. Eta hiztegia hizkuntza estandarra eraikitze orduan oinarri-oinarrizkoa denez, Ibon euskararen batasunaren historian zutabe sendo bezala geratuko da. Koldo Mitxelenaren oinordeko zuzen gisa.

Hau dela eta, Patxi Altuna zenak behin baino gehiagotan agertu zidan bere kezka, alegia, nor izango ote zen Mitxelenaren lekukoa hartuko zuena. (70.eko hamarkadari dagozkion kontuez ari naiz, euskara batuaren lehenbiziko eztabaida haien garaiaz). Altuna beldur zen Bizkai aldetik etorriko ote zen jarraipena. Behin baino gehiagotan galdetzen zidan. Ni garai haietan Bilbo aldean nebilenez, gauzak handik nola ikusten ziren jakin nahi zuen nonbait. Izen bat ere aipatzen zidan, denok ezagutzen duguna, baina isilpean utziko dudana. Beldurra ematen zion aukera honek. Nik ezetz esaten nion, lasai egoteko, hortik ez zihoazela Jainkoaren diseinuak. Halako batean, esan nion Sarasola ikusten nuela leku horretan eta Mitxelenaren ‘oinordeko’ arrazoizkoa berau izango zela iruditzen zitzaidala. Nire iritziarekin pixka bat lasaitu zela uste dut, eta azkenean, bere begiz ikusi ahal izan zuen gauzak nondik nora zihoazen. Gaur holako oinordekorik inon baldin bada, berau da, dudarik gabe. 2011-n Euskadi saria jaso zuenean, publikoki aitortu zitzaion.

Sarasolaren meritua da, beti ere euskararen eredu estandarra helburu, euskararen altxor lexikoa bildu eta landu izana. Horretan eman ditu azken hamarkadak. Baina ez lexikoa bakarrik, testu bilketa handia baitago hor, eta horrenbestez, euskarari buruzko beste hainbat informazio ere eskura jarri zaigu, dela gramatikaz, historiaz eta abarrez, Mitxelenak hasitako lanari jarraituz. Euskara baldin bada euskaldun egiten gaituena, ez digu egin mesede makala euskaldunoi euskararen altxor preziatu hori pilatuz eta, ondorioz, Euskara Batuaren Kutxa dei genezakeen hori zainduz eta beteaz. Lexikoaz baino zerbait gehiago jasotzen da kutxa horretan: corpusak, testuak berak...

Hitzalditxo hau prestatzen ari nintzela, euskara batuaren hasikin bezala agertu zen *Batasunaren Kutxari* begiratu bat eman nahi nion. “Mitxelenaren promesaren pean”, hiztegi labur bat eta adiztegi baturako proposamen bat biltzen zen. Eta orain arteko nire hitz hauen solemnetasuna arintzearren edo, gertatu zaidan pasadizoa gogorarazi nahi dizuet. EHU-ko liburutegiko web-ean sartu eta *Batasunaren kutxa* bilaketan sakatu nuen eta, agerkunde moduko bat izan nuen. Honela erantzun zidan liburuzain birtualak: “Katalogoan ez dago emaitzarik. - (ra)ko batasunaren kutxa. Beste hau esan nahi zenuke: basatasunaren deia?” Harritu nintzen. Azkenean barreari eman nion.

Hasierako *Kutxa* hark ez dakit basatasunetik zenbat zuen. Gaurko zenbait kutxak eta bankuk dutena adinakorik ez behintzat. Baina Sarasolak Mitxelenaren eskutik jaso eta metatu duen altxorrek bai ez duela basatasunaren arrastorik, euskarak berak izan dezakeena gorabehera. Izan ere, Sarasolaren merezimenduen artean, eta hiztegi gisa, lana behar bezala antolatzeke izan duen gaitasuna azpimarratu nahi nuke. Ez da meritu makala, lantaldea sortu (eskola bat sortu ere, esango nuke), teknologia egokia bilatu eta egokitu, langaiak finkatu, epeak ezarri, finantzabidea ziurtatu... eta abar, dena bere lekuan eta bakoitzari dagokion pisua eskainiz... Honetan Sarasolak bete-betean asmatu du, herri agintariekin edo argialetxeekin inoiz izandako kalapita batzuk gorabehera. Eta OEH horren arrimuan beste hainbat hiztegi, corpus eta abar landu ditu eta lantzen dihardu. Azken aldian egin diren hiztegiek Ibonen lanari asko zor diote. Idazleek, itzultzaileek, gramatikariek ere bai.

Bestelako lanak

Baina Sarasola ikerlaria ez da bizi izan bere Olinpoan. Euskararen komunitateak behar zituen eta behar dituen premiak ongi ezagutzen ditu eta betidanik zuzendu ditu premia horietara bere ezagutzak eta denbora, leialtasunez, zintzotasun intelektualez, gizatasunez. Berezko doai horiek bultzatu dute beste eginkizun batzuetara: saio lanak, aldizkarietako hainbat artikulua, lehengoak eta oraintsukoak, irakas testugintzakoak... Gogoratzen Donostian, EUTG-n, 1977-79-etan edo, larunbat arratsaldeetan egiten genituen bilerak *Euskara lantzen* testu liburuak prestatzeko ahaleginean? Miren Azkarate, Gotzon Aleman zena, Koro Navarro, M^a Karmen Garmendia, Karlos Otegi..., Ibon tarteko. Geroago, zenbat forotan ez du eskaini bere argia euskararen, eta euskara batuaren arazo gori batzuei buruz! Hor dugu *Euskara batuaren ajeak* liburu ederra ere.

Lehengo batean Gasteizko irakasle-eskolako irakasle ohi bat entzun nuen liburu honen goraipamena egiten. Urtero-urtero irakurrarazten omen zien bere ikasleei.

Azkenik, aipa nezake Ibonen beste meritu bat ere: Euskal Filologiarako irakasle bila ibili zenekoa. Mitxelenaren lankide izan zen hasiera-hasieratik Euskal Herriko Unibertsitatean euskal filologia ikasketak ezartzeko orduan. Horretarako ‘merkatu akademikoan’ garai hartan zeuden pertsona aproposenak bilatzen saiatu ziren. Nolanahi ere, ez da meritu txikia haiena, gu bezalakoengan fedea eta konfiantza jartzea. Eman dezagun asmatu zutela.

Eta altxorraren giltzak?

Izenburuan *laudatio* hitz arrotz eta hotzaren ordeztan *Altxorraren giltzak* ezarri dut. “Los guardianos del tesoro que es el euskera están en crisis” irakur daiteke sarean dagoen webgune batean, Euskaltzaindiari erreferentzia eginez. Kostatu duk kutxa hori, euskaldunon altxor hori, zaintzea eta osatzea, baina oraindik ez zagok erabat betea. Sekula ez duk egongo, ondo dakik. Hi izan haiz azken urteotan giltzaren arduradun berezia. Ezin da adio esan eta giltzok edozeinen esku utzi, albotik ondo zaindu gabe, zeharka bederen. Honek ez duela erremediorik? Hala diok, baina badakik: gauza guztiek diate irtenbidea. Gramatika batzordeak eskertzen dik elkartasun keinua, heure postutik dimisioa eman huenekoa. Baina oraindik izango diagu zer esana. Ala ez? Nik hala espero diat. Eskerrik asko, Ibon!

Donostian, 2015eko martxoaren 13an